

1.BALOREZKO PROPOSAMENA:

Gure proiektua merkeagoa delako eta erabiltzaileei emaitza onak ekartzen dizkielako nabarmentzen da. Gure bezeroentzako onena bilatzen dugu, eta, horregatik, proiektuaren oinarria haien errendimendua hobetzea edo haien ikaskuntza zabaltzea da. Ikassmart oso proiektu beharrezkoa da gaur egun, gazte askok ez baitute ia denborarik eskola partikularretara joateko, urruti bizi dirrelako eta ez die denborarik ematen, gauza gehiago egiten dutelako edo nahiko garestiak izaten direlako, eta horrek kezkatu egiten ditu, gehienak ez dute ia inoiz ulertzen emandako ikasgaien %100, eta beti zalantzekin bukatzen dute klasearen amaieran, eta ez dakite zer egin. Horietako gehienek lotsaz edo beldurraz galdetu gabe ere uzten dituzte beren zalantzak; beraz, ikasleen onerako eta errendimendu akademikoa hobetzeko proposatzen dugu proiektu hau.

Ikassmart online klaseak dira eta aplikazioan erregistratutako erabiltzaileentzat grabatzen dira. Era guztietako irakasgaiak ematen ditugu, irakasleak ditugulako edozertarako prest. Grabatutako klastara eguneko 24 orduetan sar zaitezke , baina zalantzak edo galdera espezifikoak egiteko ordutegi bat dugu. Langileek 8:30-13:00, 13:30-17:30 eta 18:30-22:00 bakarrik erantzun ditzakete, baldin eta Premium Planean edo Pro Planean harpidetzen ez bazara, eta plan horri buruzko zalantzak eguneko edozein ordutan galdetzeko eskubidea baduzu. Erabiltzaileak eskatzen duen gairen bati buruzko eskolak ere ematen ditugu, hobeto ulertu ahal izateko, baina klase horietarako gutxienez 24 ordu lehenago abisatu behar da, langileek klase produktibo bat antolatu ahal izateko. Guztiaz gainlehen aipatu dugun atal batean, orrialdeko erabiltzaile guztiek (irakasleak barne) beren apunteak, errepasso-azterketak edo beste edozein gauza igo ditzakete, beste erabiltzaile batzuei laguntzeko, baina atal honetara pro eta premium erabiltzaileak bakarrik sar daitezke.